



DEBAKO HONDARTZA

2024ko udaldiko toldoak esleitzea

Esleipenak 2024ko **ekainaren 12an egingo den zozketa** irekian oinarrituta egingo dira. Zerbitzuak hurrengo urtean jarraitzen badu eta udalak hala baderitzo, zozketak hurrengo urterako ere balioko du.

Zozketan parte hartzeko izen-ematea ekainaren 5etik 10era egin ahal izango da.

Zozketatzen diren toldoak: 150. Ikusi azken orriko planoan bakoitzaren kokapena.

- 1. multzoa: 33 toldo
- 2. multzoa: 29 toldo
- 3. multzoa: 28 toldo
- 4. multzoa: 34 toldo
- 5. multzoa: 16 toldo
- Egokitutakoak: 10 toldo

Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiak direla eta, baliteke toldo gutxi batzuk gehiago izatea. Toldo horiek bigarren lerroan jarriko lirateke, eta bigarren fasean ezarritakoaren arabera esleitu lirateke.

Eskaera egiteko baldintzak

- 18 urtetik gorakoa edo adingabe emantzipatua izatea
- Europar Batasuneko edozein udalerritan bizitzea
- Pertsona eta helbide bakoitzeko inskripzio bakarra egin daiteke.

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako erreserba

Desgaitasunen bat duten pertsonentzako 10 toldo gordeko dira.

Desgaitasuna duen adingabe batentzat eskaera egin nahi izanez gero, gurasoek familia-liburua aurkeztu beharko dute, eskaera haien izenean egin dadin. Legezko tutoreen kasuan, berriz, hori egiaztatzen duen agiria.

Beharrezko dokumentazioa:

- Nahitaezkoa da izapide honetan adierazitako formularioa erabiltzea (I. eranskina. Udaldiko toldo eskaera)
- Desgaitasuna duten pertsonentzako toldoak eskuratzeko: A, B edo 7. mailako mugikortasun mugatuko baremoaren ziurtagiri ofiziala, gutxienez. Ziurtagiria edo horren irudia duen fitxategi bat aurkeztu behar da.



2024 denboraldiko abonauak:

	Tasa	Fidantza	Guztira
1. ilarako toldoak, denboraldia	235 €	20 €	255 €
2. ilarako toldoak (eta egokituak), denboraldia	210 €	20 €	230 €

20€-ko fidantza ezarriko da toldo bakoitzeko. Denboraldi bukaeran fidantza itzuliko da, toldoa eta utzitako aulkiak egoera onean daudela ziurtatu ondoren.

LEHENENGO FASEA

Hurrengoak dira lehenengo fasearen prozeduraren urratsak:

	Epemugak
1. Zozketan izena ematea. Web bidez edo aurrez aurre turismo bulegoan. Nahitaezkoa I. eranskina betetzea.	Ekainaren 5 - 10 bitartean
2. Izena eman dutenen zerrendak argitaratzea. NANA eta zozketarako zenbakia udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.	Ekainak 11
3. Zozketa. Toldo-multzo bakoitzeko zozketa bat egingo da. Talde bakoitzeko lehen zenbaki sarituari mendebaldeko muturrean dagoen lehen toldoa egokituko zaio, eta hurrengoak korrelatiboki esleituko dira zerrendei jarraiki, talde bakoitzeko toldo-kopurua osatu arte. Zozketaren emaitzak udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.	Ekainak 12
4. Toldoa ordaintzea. Zozketa egin eta hurrengo 48 orduetan toldoa ordaintzen ez bada, toldoa izateko eskubidea galduko da. 20 €ko fidantza ere ordaindu behar da.	Ekainak 14
5. Zozketaren ondorioz izandako emaitzaren hurrenkera jarraituz, behin-behineko ordezkoen zerrendak eratuko dira multzo bakoitzeko.	Ekainak 13
6. Behin ordainketa epea amaituta, ordezkoen zerrenda eguneratuko da. Behin-betiko ordezkoen zerrenda eta libre gelditu diren toldoen zerrenda udaleko web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan argitaratuko dira.	Ekainak 17
7. Hurrenkerari jarraituz, izena ematerakoan aukeratutako multzoaren mendebaldetik hasita libre dagoen lehen toldoa esleituko zaio zerrendako lehenengoari. Multzoka, toldo guztiak bete arte edota ordezkoen zerrenda agortu arte jarraituko da.	Ekainak 18



8. Toldoa ordaintzea. Hurrengo 48 orduetan toldoa ordaintzen ez bada, toldoa izateko eskubidea galduko da. Gogoratu 20€ko fidantza ere ordaindu behar dela.	Ekainak 20
--	------------

Zozketa:

Ekainaren 12an, goizeko 9:00etan, udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan.

Zozketa aplikazio informatikoaren bidez egingo da, eta horrek arazoak ematen baditu, zenbakidun-bolatxoak eskuz aterata egingo da.

Ordainketa:

Toldoa esleitu ondoren egin behar da ordainketa.

Transferentzia bitartez egingo da 48 ordutan eta ordainagiria bidali beharko da ingurumena@deba.eus helbidera edo aurrez aurre eraman turismo bulegora.

Kontzeptuan norberaren izen-abizenak eta esleitutako toldoaren zenbakia jarriko da.

Kontu zenbakia ordainketak egiteko, **Laboral Kutxa: IBAN ES86 3035 0041 49 0410900000**

BIGARREN FASEA:

Udalak libre geratu diren toldoak argitaratuko ditu web orrian eta udaletxe azpiko ohar-taulan. Udaldi osorako, hilabeterako, aste betetako edota egunerako alokatuko ditu toldo horiek **ekainaren 24tik aurrera**, egon daitezkeen eskaera-ordenaren arabera.

Fase honetako eskaerak **hondartzako aldagela edo kabinetan** egingo dira.

Gainontzeko prezioak

	Tasa	Fidantza	Guztira
Toldoa, hilabeteko	120 €	20 €	140 €
Toldoa, asteko	60 €	20 €	80 €
Toldoa, eguneko	15 €	20 €	35 €

Abonu bakoitzeko 20€ko fidantza ezarriko da toldo bakoitzeko. Zerbitzua amaitzean fidantza itzuliko da, toldoa eta utzitako aulkiak egoera onean daudela ziurtatu ondoren.

